

## 2018KO IRAILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE SEPTIEMBRE DE 2018

**Akta zenbakia:** 11/2018  
**Bilera data:** 2018-09-25  
**Bilera mota:** Ohiko osoko bilkura  
**Deialdia:** Lehenengoa  
**Ordu:** 19:00- 19:30  
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

### Bertaratutakoak:

**Alkatea:** Mikel Pagola Tolosa

### Zinegotziak:

Maribel Vaquero Montero  
Jorge Segurado Iriondo  
David Rosco Jorge  
Juan Luis Goikoetxea Benzala  
M<sup>a</sup> Pilar Sarasola Bulman  
Manuel Mayoz Ostolaza  
Mikel Izagirre Rekondo  
Itziar Artola Bedia  
Xabier Yurramendi Garmendia  
Consuelo Frutos Gonzalez  
Ivan Haro Marcos

### Ez dira bertaratu eta adierazi dute:

Ixiar Martiarena Lizarazu

### Idazkaria:

Mateo Habibi Astigarraga López

Urnieta, 2018ko irailaren 25ean, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 19:00etan, Mikel Pagola Tolosa alkatea lehendakari dutela, ohiko bilera egiteko.

Gehiengo absolutuaren quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

### Aztergaiak:

**1.- 2018ko uztailaren 24ko ohiko udalbatzarraren aktaren, eta 2018ko abuztuaren 1eko eta irailaren 7ko ez-ohiko udalbatzarren aktaren onarpena bidezko bada.**

**2.- 2018/08 zkidun. kreditu aldaketa: kreditu gehigarriak.**

**Acta nº:** 11/2018  
**Fecha:** 25-09-2018  
**Tipo de reunión:** Pleno ordinario  
**Convocatoria:** Primera  
**Hora:** 19:00- 19:30  
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

### Reunidos:

**Alcalde:** Mikel Pagola Tolosa

### Concejales:

Maribel Vaquero Montero  
Jorge Segurado Iriondo  
David Rosco Jorge  
Juan Luis Goikoetxea Benzala  
M<sup>a</sup> Pilar Sarasola Bulman  
Manuel Mayoz Ostolaza  
Mikel Izagirre Rekondo  
Itziar Artola Bedia  
Xabier Yurramendi Garmendia  
Consuelo Frutos González  
Iván Haro Marcos

### No asisten y excusan su ausencia:

Ixiar Martiarena Lizarazu

### Secretario:

Mateo Habibi Astigarraga López

En la villa de Urnieta a 25 de septiembre de 2018, siendo las 19:00 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Mikel Pagola Tolosa, al objeto de celebrar sesión ordinaria.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

### Orden del día:

**1.- Aprobar, si procede, las actas de la sesión plenaria ordinaria del 24 de julio del 2018 y de las sesiones plenarias extraordinarias del 1 de agosto y de 7 de septiembre de 2018.**

**2.- Modificación de crédito nº 08/2018: créditos adicionales.**

## 2018KO IRAILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE SEPTIEMBRE DE 2018

**3.- 2018/09 zkidun kreditu aldaketa: kreditu transferentzia.**

**4.- Alkatetza dekretuen berri ematea. (451-625)**

**5.- Galdera-eskariak.**

**1.- 2018ko uztailaren 24ko ohiko udalbatzarraren aktaren, eta 2018ko abuztuaren 1eko eta irailaren 7ko ez-ohiko udalbatzarren aktaren onarpena bidezko bada.**

2018ko uztailaren 24ko ohiko udalbatzarraren akta eta abuztuaren 1eko eta irailaren 7ko ez-ohiko udalbatzarren aktak onartzea proposatzen da.

Udalbatzak izatez eta eskubidez osatzen duten 13 zinegotzietatik, azaldu diren edo bertan dauden 12 zinegotzien aho bateko adostasunez onartu ditu 2018ko uztailaren 24ko ohiko udalbatzarraren akta eta abuztuaren 1eko eta irailaren 7ko ez-ohiko udalbatzarren aktak.

**2.- 2018/08 zkidun. kreditu aldaketa: kreditu gehigarriak.**

Mikel Pagola alkateak azaltzen du gaia irailaren 20ko Antolakuntzako Batzorde Informatzailean landu zela. Kreditu gehigarri honek suposatzen dituen 347.000 euroak kiroldetako igerilekuan egin behar diren egokipen obra egiteko direla, eta diru kopuru hau gerakinetik datorrela gehitzen du.

Kreditu gehigarri hau proposatu aurretik, proiektua aurkeztu beharko luketela, baino oraindik ez daukatela azaltzen du alkateak, aste honetan iritxiko zaiela.

Diru honekin egin nahi dena, laburbilduz, hau dela:

Igerilekuko eta atxikitako eraikineko makineriaren lekualdatze lanak.

Udal kiroldetegiaren birgaitze lanak laster hasteko daudela, beharrezko lantzat hartzen da eta igerilekuko uraren birzirkulazio makineriaren lekualdaketa aurretik eginda. Gaur egun, instalazio

**3.- Modificación de crédito nº 09/2018: transferencia de créditos.**

**4.- Dar cuenta de los decretos de alcaldía. (451-625).**

**5.- Ruegos y preguntas.**

**1.- Aprobar, si procede, las actas de la sesión plenaria ordinaria del 24 de julio del 2018 y de las sesiones plenarias extraordinarias del 1 de agosto y de 7 de septiembre de 2018.**

Se propone la aprobación de las actas de la sesión plenaria ordinaria del 24 de julio de 2018 y de las sesiones plenarias extraordinarias del 1 de agosto y del 7 de septiembre de 2018.

El Pleno ha aprobado por unanimidad de los 12 concejales presentes o asistentes a la sesión, de los 13 que de hecho y derecho integran la Corporación, las actas de la sesión plenaria ordinaria del 24 de julio y de la sesión plenaria extraordinaria del 1 de agosto y del 7 de septiembre de 2018.

**2.- Modificación de crédito nº 08/2018: créditos adicionales.**

El alcalde Mikel Pagola explica que el asunto se trató en la Comisión de Organización del 20 de septiembre. Que los 347.000 euros que supone este crédito adicional, son para las obras de adecuación que se tienen que hacer en la piscina del polideportivo, y añade que esta cantidad de dinero viene del remanente.

Antes de proponer este crédito adicional, deberían de presentar el proyecto, pero el alcalde explica que todavía no lo tienen, que les llegará esta semana.

Que lo que se quiere hacer con este dinero, en resumen, es lo siguiente:

Obras de traslado de la maquinaria de la piscina y edificio adjunto.

Próximo el inicio de las obras de reforma del polideportivo municipal se impone como trabajo necesario y previo el traslado de la maquinaria de recirculación del agua de la piscina. Actualmente

## 2018KO IRAILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE SEPTIEMBRE DE 2018

hori nagusiki laster eraitsi beharko den eraikinaren barruan dago. Beraz, datorren urtean igerilekuaz gozatu nahi bada, lan hauek lehenbailehen egin beharko dira, hau da, ezinbestekoa izango zen instalazio hori biltzen duen instalazio bat egitea.

Obra horietan neurri txikiko eraikin bat egin beharko da, bai azaleran, bai altueran, igerilekuko solariumean kokatutakoa eta Pintore kalearen 5 zenbakian, zelaiaren gaineko aparkalekuaren ondoan. Eraikin horren barruan, igerilekuaren hedapen-hodiak eta urararen birzirkulaziorako ponpak jarriko dira, eta baita ondo funtzionatu dezan beharrezkoak diren gainerako osagai mekanikoak: trikolorean banaketa... Gainera, Osakidetza eskariz, bulkatzearen kanalizazioa eta igerilekuaren itzulerak aldatu beharko dira, eta beraz, hoditeriaren kanalizazio berria eramatean, puntu hori eguneratzeko aprobetxatuko da.

Alkateak jarraitzen du azaltzen proiektua eduki bezain laister, onartzerako ekarriko dutela eta baita ere lizitazioa arautuko duten pleguak. Beraien aurreikuspena urte hasierarako lizitazio prozesua bukatuta egotea dela, obrarekin hasi eta maiatzerako bukatuta egoteko, udan igerilekua erabilgarria izateko.

Consuelo Frutos, Udal talde Sozialistako bozeramaleak hartu du hitza eta esan du gai hori irailaren 20ko Antolakuntza Batzordean landu zela. Batzorde horretan, eta Maribel Vaquero Batzordeko lehendakariak aurkeztutako eta Kontu-hartzailearen txostenak bermatutako proposamen txostenak azaltzen zenez, hau esan zuen: *“Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu egitea, ondoko proposamenean adierazten den moduan. Ekitaldi honetako aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko”*. Atxikitzen den proposamenarekin lotutako gastua 347.000 eurokoa da, Diruzaintzako soberakinetik eratorria eta Kiroldegira bideratuko dira.

Uste dute Antolakuntza Batzorde horretan azaldu zena ulergarri eta oso argi zegoela, eta beraz, ulertzen zen kiroldegian lan batzuk egin behar zirela eta aurrekontuan kreditu nahikorik ez dagoenez, 347.000 euroko kreditu aldaketa egin behar dela. Gehitu du kopuru hori ikusi zutenean, harritu egin

dicha instalación se encuentra mayormente dentro del edificio que próximamente deberá ser demolido. Por tanto, si el año que viene se quiere disfrutar de la piscina se deberán acometer estos trabajos lo antes posible, esto es, sería imperativo realizar una instalación anexa que alberga dicha instalación.

Las obras consistirán en la construcción de un edificio de pequeña magnitud tanto en superficie como en altura ubicado entre el solárium de la piscina y el número 5 de la calle Pintore junto al aparcamiento sobre el césped. Dentro de ese edificio se alojarán los basos de expansión de la piscina y las bombas para la recirculación del agua, así como el resto de componentes mecánicos para el correcto funcionamiento de la misma: el reparto del tricloro etc... Además por petición de Osakidetza se deberá cambiar la canalización de impulsión y retornos de la piscina, por lo que al llevar la nueva canalización de tuberías se aprovechará para actualizar este punto.

El alcalde continúa explicando que tan pronto como tengan el proyecto, lo traerán para su aprobación y también los pliegos que regularán la licitación. Su predicción es que para principios de año el proceso de licitación esté terminado, para comenzar la obra y que para mayo esté terminada, para que en verano se pueda usar la piscina.

Toma la palabra Consuelo Frutos portavoz del Grupo Municipal Socialista para manifestar que este tema se trató en la Comisión de Organización del 20 de septiembre. En dicha comisión y según explicaba el informe propuesta presentado por la Presidenta de la Comisión Maribel Vaquero y avalado por el informe de la Interventora decía lo siguiente: *“Con objeto de atender las necesidades y obligaciones de los respectivos servicios municipales, se precisa la realización de los gastos relacionados en la propuesta que se adjunta. Sin embargo, a la vista de la ejecución del presupuesto de este ejercicio, se constata la insuficiencia del crédito necesario para hacer frente a dichos gastos”*. El gasto relacionado a la propuesta que se adjunta es de 347.000 euros, procedentes del remanente de Tesorería e irán destinados al Polideportivo.

Opinan que lo que se explicó en dicha Comisión de Organización estaba entendible y clarito, así, se entendía que hay que acometer unas obras en el polideportivo y como no hay suficiente crédito en el presupuesto hay que hacer una modificación de crédito de 347.000 euros. Añade que cuando vieron

## 2018KO IRAILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE SEPTIEMBRE DE 2018

zirela, pentsatu zutelako ezin zuelako farolen, baldosen edo igerilekua inguratzen duen hasiaren aldaketena izan.

Kritikatzen du ez direla kiroldegian egin beharreko lanak dagokion batzordean zehatzago azaldu, eta gehiago kontuan izanik hiru egun lehenago Lurraldeko Batzorde bat egon zela, eta bertan azaldu zitekeela, gai zerrenda agertzen ez bazen ere, eta proiekturik ez bazegoen ere, Alkateak gaur azaldu duena, beste 5 gairekin egin zen bezala, gai zerrendan egon ez arren azaldu baitziren.

Gehitu du Lurraldeko Batzorde horretan gai hori landu ez bazen, edozein delarik ere arrazoia, Lurraldeko beste batzorde bat deitu zitekeela, Antolakuntza Batzordearen egunean berean eta ordu berean, horrela esaten baitu UAOk bere 35. artikuluan, *inongo batzordetan ezin izango da beste batzorde baten eskumenekoa den gairik landu, hala ere, bi edo informazio batzorde gehiagoren bilerak deitu ahal izango dira komuneko gaiak lantzeko (...)* eta kasu honetan egin zitekeen, gaia komunekoa zelako.

Ikusten ari direna da ez dela lehenengo aldia gobernu taldeak horrela jokatzeko duena, legegintzaldian zehar gehiagotan egin izan duela, eta alderdi sozialistaren etengabeko kexen aurrean beti esaten dutela ez dela berriz errepikatuko, baina berriro errepikatzen da.

Esan du behin eta berriz errepikatu dutela moduak oso garrantzitsuak direla, funtsa bezain beste edo gehiago, baina frogaz ezaketa beste behin gobernu taldeari berdin zaiola. Horregatik, beren botoa ez da puntu horretan aldekoa izango, izan ere, moduak batez ere politikan oso garrantzitsuak iruditzen zaizkielako, moduak eta funtsa azkenean gauza bera direlako.

Mikel Izaguirre EH-Bildu Udala Taldeko zinegotziak adierazten du Consuelok azaldu duenarekin ados daudela kritika aldetik, eta beste ustez formak garrantzitsuak direla eta inportantea dela behar diren pautak erabiltzea, hau da, kreditu aldaketa honen eztabaida eta bozketa proiektua ezagutu eta landu ondoren etorri behar zuela. Hala ere, beraiek kreditu aldaketa honen alde bozkatuko dutela. Beste gauza bat dela edukia, hau da, eztabaidan dagoen obra egin behar dela polikiroldegia berriro edo ez.

esa cantidad se asombraron porque pensaron que la misma no podía corresponder a un cambio de farolas, unas baldosas o el seto que rodea la piscina.

Critica que no se hayan explicado más detalladamente las obras que se tienen que realizar en el polideportivo en la comisión correspondiente, y más teniendo en cuenta que tres días antes hubo una Comisión de Territorio en la que se podía haber explicado, aún cuando no estaba reflejado en el orden del día y aún cuando no hubiera proyecto, lo que el Alcalde ha explicado en este Pleno, tal y como se hizo con otros 5 temas que se explicaron que no estaban en el orden del día.

Añade que en el supuesto de que no se tratara este tema en aquella Comisión de Territorio por los motivos que fueran, se podía haber convocado otra Comisión de Territorio el mismo día y a la misma hora que la Comisión de Organización, porque así lo dice el ROM en su artículo 35, (...) *en ninguna comisión se podrá deliberar sobre asuntos de la competencia de otras, no obstante podrán convocarse reuniones de dos o más comisiones informativas para tratar asuntos comunes (...)* y en este caso se podría haber hecho porque el tema era común.

Lo que están viendo es que no es la primera vez que el equipo de gobierno actúa de esta forma, que a lo largo de la legislatura lo han hecho habitualmente, y que ante las continuas quejas del partido socialista siempre adquieren el compromiso de que no se va a volver a repetir, pero se vuelve a repetir.

Dice que han repetido una y otra vez que las formas son muy importantes tanto o más que el fondo, pero que pueden comprobar una vez más que al equipo de gobierno le da igual. Por ello, su voto no va a ser favorable en este punto, ya que las formas, sobre todo en política les parecen muy importantes, porque la forma al final es el fondo.

Mikel Izaguirre el concejal de grupo municipal EH-Bildu expone que están de acuerdo con lo dicho por Consuelo como crítica y que ellos piensan que las formas son importantes y que es importante utilizar las pautas necesarias, es decir, el debate de este cambio de crédito y que debía de venir una vez de conocer y trabajar el proyecto de votación. Aun así, ellos votarán a favor de este cambio de crédito. Que otra cosa es el contenido, es decir, que hay que hacer la obra que se debate, se renueve o no el polideportivo.

## 2018KO IRAILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE SEPTIEMBRE DE 2018

Mikel Pagola alkateak Consuelori erantzunez dio obra honen proiektua Lurraldeko Batzordean aurkeztuko dela, baina obra hau egiteko behar den dirua habilitatzeko kreditu aldaketa Antolakuntzako Batzordean landu beharreko gai dela. Kreditu aldaketaren prozedura administratiboak epe batzuk bete behar dituela gaineratzen du, eta hauen arabera urriaren amaierararte ez dela egongo bukatuta, hau da, dirua ez dela erabilgarria izango ordurarte. Beraien asmoa denbora honetan, proiektua aurkeztea eta lantzea dela azaltzen du, eta honen jarraian obra honen lizitazioa arautuko dituen plegu administratiboak aurkeztuko direla Lurraldeko Batzordean. Saiatu direla proiektua batzordera ekartzen eta ez dutela lortu, baina gutxienez aurrekontu bat badaukatela prozedura administratiboa martxan jartzeko eta denbora irabazteko.

Mikel Izaguirre erantzunez dio obra egin beharra dagoela eta beraien helburua prozedura honekin denbora irabaztea izan dela. Bai proiektua bai pleguak Lurraldeko Batzordean aurkeztuko direla.

Maribel Vaquero Euzko Abertzaleak udal taldearen bozeramaileak adierazten du dagokion batzordera eramán dutela gaia, UAOk esaten duen bezala, kreditu aldaketak Antolakuntzako Batzordeari dagozkiolako, eta obrak egiteko eta proiektua onartzeko epeak errespetatuz beharrezkoa zela behar den dirua lortzeko prozedura administratiboa martxan jartzea. Gogorarazten du kreditu aldaketa honen ebazpena jendaurrean egon behar dela 15 egunetako epez. Beraien aburuz egin beharreko obra dela eta Udal honetan askotan aipaturiko obra bat dela, eta proiektua dagokion batzordeari bideratuko zaiola.

Mikel Izaguirre zinegotziak berrezten du kreditu aldaketen prozedura para behar zen batzordetik pasa dela, eta ulertu dezakeela denbora irabazteko egin dela baina bere ustez horren aurretik beste bat egin behar zela proiektuaren informazioa emateko.

Mikel Pagola alkateak dio gaurko udaltzabarrean irakurri duen testuan azaltzen direla obra honen gorabeherak, eta batzordean ere orokortasun baten baitan obra hau zertan datzan komentatu zela, nahiz eta zehaztasun asko ez eman.

El alcalde Mikel Pagola dice en respuesta a Consuelo que el proyecto de esta obra se presentará en el Comisión de Territorio, pero que la modificación de crédito para habilitar el dinero que se necesita para hacer esta obra se tratará en la Comisión de Organización. Añade que el procedimiento administrativo del cambio de crédito tiene que cumplir unos plazos, y según ellos, no estará terminado hasta finales de octubre, es decir, que el dinero no estará disponible hasta entonces. Explica que su intención en este periodo, es presentar el proyecto y trabajarlo, y que a continuación, se presentarán en la Comisión de Territorio los pliegos administrativos que regularán la licitación de esta obra. Que han intentado traer el proyecto a la comisión y no lo han conseguido, pero que por lo menos tienen un presupuesto para poner en marcha el procedimiento administrativo y ganar tiempo.

En respuesta a Mikel Izaguirre dice que hay que hacer la obra y que su objetivo con este procedimiento ha sido ganar tiempo. Que tanto el proyecto como los pliegos se presentarán en la Comisión de Territorio.

Maribel Vaquero la portavoz de grupo municipal Euzko Abertzaleak dice que han llevado el tema a la comisión correspondiente, ya que tal y como lo dice el ROM, las modificaciones de crédito de corresponden a la Comisión de Organización, y que respetando los plazos para llevar a cabo las obras y aprobar el proyecto, era necesario poner en marcha el procedimiento administrativo para conseguir el dinero necesario. Recuerda que la resolución de este cambio de crédito debe ser expuesta ante el público por un plazo de 15 días. Que en su opinión, es una obra que hay que llevar a cabo y que es una obra que muchas veces se ha mencionado en este Ayuntamiento, y que se llevará el proyecto a la comisión correspondiente.

El concejal Mikel Izaguirre confirma que el procedimiento de modificación de crédito ha pasado por la comisión que tenía que pasar, y que puede enterderlo que se haya hecho para ganar tiempo, pero que, en su opinión, antes de esa habría que haber convocado otra, para dar información sobre el proyecto.

El alcalde Mikel Pagola dice que en el texto que ha leído en el Pleno de hoy aparece lo fundamental de esta obra, y que en la comisión también se comentó en qué consistía esta obra dentro de una generalidad, aunque no se dieron grandes detalles.

## 2018KO IRAILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE SEPTIEMBRE DE 2018

Consuelo Frutos Udal talde sozialistako bozeramaleak adierazi du beraiek kritikatzeko dutena dela osoko bilkura honetan puntu honen inguruan eman diren azalpenak alde aurretik eman zitezkeela Lurraldeko Batzorde batean, eta ez Osoko Bilkurara kreditu aldaketa bat ekarri diru horren helburuari buruzko informaziorik eman gabe. Gehitu du gai hori behin baino gehiagotan aipatu dutela legegintzaldi honetan eta gobernu taldeak beren haserrea ulertu behar duela.

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu egitea, ondoko proposamenean adierazten den moduan. Ekitaldi honetako aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Beraz, premiazkoa da kredituak aldatzeko espedienteari hasiera ematea, proposamenean zehazten den kopuruan kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko, eta, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan jasotakoaren arabera.

Ikusik kreditu aldaketaren espedientea, 08/2018 zenbakiarekin identifikatutako kreditu gehigarrien bitartez, Udala honetan indarrean dagoen aurrekontuari eragiten diona, 347.000 €-koa.

Ikusirik bitarteko kontu-hartzailek 2018ko irailaren 17an igorritako txostenaren arabera, espediente hori aplikagarri zion araudiari doitzen zaiola, zehazki, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluari eta hurrengoari, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundearen aurrekontuari buruzkoa eta Urteko Aurrekontu Gauzapenaren Udala arauari.

Aipatutako legediaren arabera erabakia Udalbatzari dagokio.

Ikusita 2018ko irailaren 20ean Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Alkateak gaia bozkatzea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 10.  
URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.  
URNIETAKO EH BILDU: 3.

Consuelo Frutos portaboz del Grupo Municipal Socialista manifiesta que lo que ellos están criticando es, que las explicaciones que se han dado en este pleno sobre este punto se podían haber dado previamente en una Comisión de Territorio, y no traer una modificación de crédito a Pleno sin dar información sobre el destino de ese dinero. Añade que este tema lo han comentado más de una vez en esta legislatura y que el equipo de gobierno tiene que entender su malestar.

Con objeto de atender las necesidades y obligaciones de los respectivos servicios municipales, se precisa la realización de los gastos relacionados en la propuesta que se adjunta. Sin embargo, a la vista de la ejecución del presupuesto de este ejercicio, se constata la insuficiencia del crédito necesario para hacer frente a dichos gastos. Por todo ello, procede iniciar expediente de modificación de créditos para crear, o en su caso incrementar, créditos en la cuantía especificada en dicha propuesta, al amparo de lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

Visto el expediente de modificación de créditos, mediante créditos adicionales identificado con el nº 08/2018 que afecta al Presupuesto vigente de este Ayuntamiento por importe de 347.000 €.

Visto que según el informe emitido por la Interventora de fecha 17 de septiembre de 2018 dicho expediente se ajusta a la normativa que le es aplicable, en concreto a los requisitos establecido por el art. 34 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa y la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria Anual.

De conformidad con la citada normativa la adopción del acuerdo corresponde al Pleno.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización el 20 de septiembre de 2018.

El alcalde ha propuesto someter a votación el asunto, con el siguiente resultado:

A favor: 10.  
URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.  
URNIETAKO EH BILDU: 3

## 2018KO IRAILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE SEPTIEMBRE DE 2018

Aurka: 2 (URNIETAKO UDAL TALDE SOZIALISTA)

En contra: 2. (GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA DEL AYUNTAMIENTO DE URNIETA)

Abstentzioak: 0

Abstenciones: 0

Udalbatzarrak, beharrezko legezko gehiengoarekin ondorengo

El Pleno adopta con la mayoría legal requerida, el siguiente

### ERABAKIA

### ACUERDO

**Lehenengoa:** 08/2018 zenbakidun kreditu aldaketaren espedienteari hasiera ematea, kreditu gehigarrien modalitatean, 2018ari dagokion Udaleko Aurrekontuaren barruan.

**Primero:** Aprobar inicialmente el expediente de Modificación de Créditos N° 08/2018, en la modalidad de créditos adicionales, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente a 2018.

### GASTUAK/GASTOS

Partida Partida	Azalpena Concepto	Kredituak / Créditos		
		Egungoak Actuales	Aldaketak Modificaciones	Behin betikoak Definitivos
1 0300.622.342.00.01 2018	POLIKIROLDEGIA POLIDEPORTIVO	0,00	347.000,00	347.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>0,00</b>	<b>347.000,00</b>	<b>347.000,00</b>

### SARRERAK/INGRESOS

Partida Partida	Azalpena Concepto	Zenbatekoa Cantidad
2 0210.870.000.00.01 2017	DIRUZAINZTA GERAKINA / REMANENTE DE TESORERIA	347.000,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>		<b>347.000,00</b>

**Bigarrenkoa:** 2003ko abenduaren 19ko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko 21/2003 Foru Arauko 34an xedatutako betez, jendaurrean jarriko da, honako arau hauek jarraituz:

**Segundo:** En cumplimiento de lo dispuesto en el 34 de la Norma Foral 21/2003 Presupuestaria de las Entidades Locales, de 19 de diciembre de 2003, se somete a información pública conforme a las siguientes reglas:

Non dagoen: Kontu hartzailletza.

Lugar donde se encuentra: Intervención

## 2018KO IRAILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE SEPTIEMBRE DE 2018

Hori aztertzeko epea, eta hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko: hamabost egun baliodun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jarri eta hurrengo egun baliodunetik zenbatzen hasita.

Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorrean BERTAN, 7:30etatik 14:30etara edo telematikoki [www.urnieta.eus](http://www.urnieta.eus) helbidean. Halaber, Herri-administrazioen administrazio-prozedura ekidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipa tzen dituen lekuetan ere aurkez daitezke.

Zein organoren aurrean egiten den erreklamazioa: Udalbatzarra.

Adierazitako informazio epea igarota erreklamaziorik edo oharzarazpenik aurkeztu ez balitz, behin betiko onartutzat emango da kreditu aldaketarako espedientea, erabaki berririk hartzeko beharrik gabe.

**Hirugarrenagoa:** Erabaki hau Kontu-hartzailatza sailera igortzea, dagozkion eraginetarako.

### 3.- 2018/09 zkidun kreditu aldaketa: kreditu transferentzia.

Mikel Pagola alkateak adierazten du puntu hau 2018ko irailaren 20ko Antolakuntza Batzordean landu zela eta azaltzen ditu kreditu transferentzi honek ekarriko dituen aldaketak.

Udal honen aurtengo aurrekontuko gastu partiden artean kreditu transferentziak egitea beharrezkotzat joenez gero, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan jasotakoaren arabera

Ikusik kreditu aldaketaren espedientea, 09/2018 zenbakiarekin identifikatutako kreditu transferentzien bitartez, Udal honetan indarrean dagoen aurrekontuari eragiten diona, 87.000 €takoa.

Plazo para examinarlo y, en su caso, para presentar reclamaciones: quince días hábiles contados a partir del siguiente también hábil del de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Oficina de presentación: En el Registro General de Entrada del Ayuntamiento BERTAN, en horario de 7:30 a 14:30 o telemáticamente en [www.urnieta.eus](http://www.urnieta.eus). Así mismo podrán presentarse en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Órgano ante el que se reclama: Ayuntamiento Pleno

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación u observación alguna, se tendrá por aprobado definitivamente el mencionado expediente de modificación de crédito, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

**Tercero:** Trasladar este acuerdo al área de Intervención a los efectos oportunos.

### 3.- Modificación de crédito nº 09/2018: transferencia de créditos.

El alcalde Mikel Pagola ha dicho que este punto se trató en la Comisión de Organización del 20 de septiembre de 2018 y explica los cambios que traerá esta transferencia de créditos.

Estimándose necesario efectuar transferencias de crédito entre partidas presupuestarias de gastos del vigente presupuesto de este Ayuntamiento, al amparo de lo previsto en el art. 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

Visto el expediente de modificación de créditos, mediante transferencia de crédito identificado con el nº 09/2018 que afecta al Presupuesto vigente de este Ayuntamiento por importe de 87.000 €.



## 2018KO IRAILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE SEPTIEMBRE DE 2018

Ikusirik bitarteko kontu-hartzailek 2018ko irailaren 20an igorritako txostenaren arabera, espediente hori aplikagarri zion araudiari doitzen zaiola, zehazki, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 29. artikuluari eta hurrengoei, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuari buruzkoa eta Urteko Aurrekontu Gauzapenaren Udal arauari.

Aipatutako legediaren arabera erabakia Udalbatzari dagokio.

Ikusita 2018ko irailaren 20ean Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Alkateak gaia bozkatzeari proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 12.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.  
URNIETAKO EH BILDU: 3  
URNIETAKO UDAL TALDE SOZIALISTA: 2.

Aurka: 0.

Abstentzioak: 0.

Udalbatzak izatez eta eskubidez osatzen duten 13 zinegotzietatik, azaldu diren edo bertan dauden 12 zinegotzien aho bateko adostasunez honako hau

### ERABAKITZEN DU

**Lehenengoa:** Kreditu aldaketako espedientea onartzea, **09/2018** zenbakiarekin identifikatutako kreditu transferentziaren bidez, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen direnak, Udal honetan indarrean dagoen Aurrekontuari eragiten diona eta taula honen arabera.

Visto que según el informe emitido por la Interventora de fecha 20 de septiembre de 2018 dicho expediente se ajusta a la normativa que le es aplicable, en concreto a los requisitos establecido por el art. 29 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa y la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria Anual.

De conformidad con la citada normativa la adopción del acuerdo corresponde al Pleno.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización el 20 de septiembre de 2018.

El alcalde ha propuesto someter a votación el asunto, con el siguiente resultado:

A favor: 12.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7.  
URNIETAKO EH BILDU: 3.  
GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA DEL AYUNTAMIENTO DE URNIETA: 2.

En contra: 0.

Abstenciones: 0.

El Pleno por unanimidad de los 12 concejales presentes o asistentes a la sesión, de los 13 que de hecho y derecho integran la Corporación, adopta el siguiente

### ACUERDO:

**Primero:** Aprobar el expediente de transferencia de créditos, mediante transferencia de crédito identificado con el nº **09/2018** que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al Presupuesto de este ayuntamiento y conforme al siguiente cuadro:

## 2018KO IRAILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE SEPTIEMBRE DE 2018

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)/Partidas de gastos cuyos créditos se transfieren (bajas)

Partida	Izena Denominación	Hasierako Kreditua Crédito Inicial	Murrizketa Minoración	Amaierako kreditua Crédito resultante
1 0600.227.231.10.99 2018	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA/ AYUDA A DOMICILIO	171.000,00	40.000,00	131.000,00
1 0600.227.231.60.03 2018	ADINEKO PERTSONEN DIAGNOSTIKOA/ DIAGNOSTICO PERSONAS MAYORES	12.000,00	12.000,00	0,00
1 0600.227.231.71.01 2018	BAZTERKETA SOZIALA ESKUALDEAN/ VIVIENDAS TUTELADAS COM.	10.000,00	6.000,00	4.000,00
1 0300.622.920.40.01 2018	ARTXIBOKO OBRAK/ OBRAS ARCHIVO	10.000,00	10.000,00	0,00
1 0420.201.342.00.01 2018	KIROLDEGIKO ALOKAIRUA/ ALQUILER POLIDEPORTIVO	70.000,00	14.000,00	56.000,00
1 0300.622.337.22.02 2018	LUDOTEKA ERREFORMAK/ REFORMAS LUDOTECA	20.000,00	5.000,00	15.000,00
GUZTIRA/TOTAL ...		<b>293.000,00</b>	<b>87.000,00</b>	<b>206.000,00</b>

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)/Partidas de gastos cuyos créditos se incrementan (altas)

Partida	Izena Denominación	Hasierako Kreditua Crédito Inicial	Gehikuntza Aumento	Amaierako kreditua/Crédito resultante
1 0600.480.231.30.01 2018	GIZARTE LARRIALDI LAGUNTZAK/ AYUDA EMERGENCIA SOCIAL	65.000,00	58.000,00	123.000,00
1 0220.626.920.50.01 2018	INFORMATIKA EKIPOAK EQUIPOS INFORMATICOS	15.000,00	14.000,00	29.000,00
1 0300.622.231.80.00 2018	KALE HEZITZAILEAK/ LOCAL EDUCADORES DE CALLE	15.000,00	15.000,00	30.000,00
GUZTIRA/TOTAL		<b>95.000,00</b>	<b>87.000,00</b>	<b>182.000,00</b>

**Bigarrenkoa.-** Ekintza hau sendoa eta exekutiboa izanik, geroko izapideen beharrik gabe, Funtsen Kontu-hartzailatza zerbitzuen bidez, bidezkoa da Kontabilitatean onartutako aldaketa islatzea, gastuetan zein diru-sarreretan, berehalako eraginarekin.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau Kontu-hartzailatza sailari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

**Segundo.-** Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los servicios de Intervención de Fondos se refleje en la Contabilidad la modificación aprobada tanto en gastos como en ingresos, con efectos inmediatos.

**Tercero.-** Trasladar este acuerdo al área de Intervención a los efectos oportunos.

#### 4.- Alkatetza dekretuen berri ematea (451-625).

Consuelo Frutos Urnietako Udal talde Sozialistako bozeramaleak 2018/561 dekretuagatik galdetu du, horren bitartez Angel Oiarzun eta Leire Lertxundi Beristain abokatuak izendatzen baitira Urnietako

#### 4.- Dar cuenta de los decretos de alcaldía (451-625).

Consuelo Frutos portavoz del Grupo Municipal Socialista de Urnieta pregunta por el decreto 2018/561, mediante el cual se nombra a los letrados Angel Oiarzun y Leire Lertxundi Beristain para

## 2018KO IRAILAREN 25EKO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 25 DE SEPTIEMBRE DE 2018

Udala ordezkatzeko Donostiako Administrazioarekiko 1. Auzi epaitegian jarraitzen den 348/2018 prozedura arruntean.

Mikel Pagola alkateak erantzun du 348/2018 prozedura hori lotuta dagoela Altuna y Uria enpresak jarritako administrazioarekiko auzi errekursoarekin, eta baitago ados Urnieta Udalak igorri dizkion kitapenekin, Arkabe eremuan bide publikoa okupatzeagatik.

Udalbatzarra 451 zk.tik 625 zk.ra Dekretuen jakinaren gainean geratzen da.

### 5.- Galdera-eskariak.

Ez dago.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak amaitutzat eman du ohiko osoko bilkura hau, goian adierazitako eguneko zazpiak eta hogeitahamarrean, eta nik, Urnieta idazkariak, hala egiaztatu dut, Alkatearen oniritziarekin.

Sin.: Mateo Habibi Astigarraga López

Idazkaria

representar al Ayuntamiento de Urnieta en el procedimiento ordinario 348/2018 que se sigue en el Juzgado nº 1 de lo Contencioso Administrativo de San Sebastián.

El alcalde Mikel Pagola responde que este procedimiento 348/2018 está relacionado con el recurso contencioso administrativo que la empresa Altuna y Uria ha interpuesto porque no está de acuerdo con las liquidaciones que el Ayuntamiento de Urnieta le ha remitido en base a una ocupación de vía pública en la zona de Arkabe.

El Pleno queda enterado de los Decretos de Alcaldía nº 451 al nº 625.

### 5.- Ruegos y preguntas.

No hay.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno ordinario, siendo las siete y treinta en la fecha indicada en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, Secretario de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Mikel Pagola Tolosa

Alkate-lehendakaria,